

Gida didaktikoa

**HAN ETA HEMENGO
IPUINAK II**

**Murumendiko
Iamia**

Murumendiko lamia

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

HELBURUA:

Bideoan ikusitako istoriotik abiatuta, fikziozko testu narratibo bat (alegia bat) ekoiztea, ahozko kontakizun bat prestatzeko. Kanala: ahozkoa. Eremua: fikziozkoa. Hartzailea: haurrak eta gurasoak.

Testua ekoizteko, planifikazioko, testuratzeko eta gainbegiratzeko eragiketak egingo dira.

EDUKIAK:

BALIOAK:

besteen sinesmeneekiko begirunea.

IGORLEA: NARRATZAILE OROJAKILEA 1. pertsonan.

LEKUA :

Toki ideologikoa: sinesmenak eta askatasun ideologikoa.

PLANIFIKAZIOA

EGITURA :

Hasiera :

Pertsonaia(k) izendatzea. Pertsonaia(k) psikikoki deskribatzea:
Amaren, aitaren, Iñakiren eta beste lagunen ezaugarriak zehaztea.

Korapiloa: Gertakariak :

Gertakari desorekatzaileak. Egoera-aldaketak.
Bukaera: pertsonen sinesmeneekiko begirunearen defentsa.

Trama kronologikoa:

Gertakariak gertatu ziren ordena berari jarraituz kontatuko da.

POLIFONIA :

Zehar-estiloa: lagunen eta beste pertsonaien hitzak kontakizunera ekartzeko, zehar-estiloa erabil daiteke.

TESTUALIZAZIOA:

Inguruaren koherentzia:

KOHESIO GESTUALA, MUGIMENDUAK eta ARTEFAKTUAK .

Kontakizuna prestatzeko orduan, hausnartuko dugu ea nola lagun dezaketen kontalariaren keinuek eta itxurak.

Kontakizunean, ahoskatze egokiaz arduratuko gara, eta, prestatetako saioetan, honako fonema hauez arduratuko gara bereziki: TS, TX, TZ.

Izenen kohesioa:

GAIAREN KOHERENTZIA EDO MANTENUA

Narratzaileak pertsonaien erreferentzia egin behar du. Horretarako, aipatu behar dituenean, bi aukera ditu: ordezkapen osoa edo partziala egitea. Beste aldetik, unearen eta lekuaren berri eman ahal izateko, leku

deiktikoak erabili beharko ditu. Irakasleak hainbat aukera aztertuko ditu ikasleekin.

Horri buruz, jolas metalinguistiko bat egin daiteke:

Ipuinaren zati bat konta daiteke pertsonaien izenak aipatu gabe, leku-izenak aipatu gabe edo denbora aipatu gabe.

Aditzen kohesioa:

Gertakari desorekatzaileak nabarmentzeko, aditzaren aspektu burutua erabiliko da narratzailearen sekuentzietan.

Aditz perifrastikoak: Nor(zer), indikatiboko lehenaldi puntukaria, geroaldia eta subjuntiboa.

Narrazioaren prestatetan, irakasleak aditzaren aspektuari buruzko hausnarketa bideratuko du, galderak eginez edo aditz-forma desegokiak erabiltzean esanahia nola aldatzen edo nahasten den errepararaziz.

ANTOLATZAILEAK:

Bezain laster. Eta berehala. t(z)erakoan. -tzeaz batera / -az batera. -n arte. Harik eta ...arte. Horiek edo beste batzuk izan daitezke; eredu gisa ekarri ditugu. Irakasleak haurren kontakizuna aztertu behar du eta falta diren antolatzaileak eskaini beharko ditu.

ANTOLATZAILE EZ LINGUISTIKOAK:

INTONAZIOA: harridura, haserrea, poza, tristura, beldurra, misterioa, iseka, malenkonia, etsipena.

Kontakizuna prestatzeko lanetan, arreta emango zaio horri, eta ikusaraziko zaie gaizki intonatzeak edo ez intonatzeak narrazioari sinesgarritasuna eta lilura nola kentzen dion.

Gidoi literarioa:

MURUMENDIKO LAMIA

MARI: Tra-la-la... Ene! Kaixo, neska-mutilok. / Ea, ba! Gaurko ipuinean kontatuko dizuedana niri gertatutakoa da, baina ziur nago zuetako askori ere horrelakoak inoiz gertatu zaizkizuela. / Baina agian nik baino zorte hobea izan duzue, eta ez zaituztete inoiz baztertu. Tira, ikus dezagun...

IÑAKI: (OFF) Ea ba, zenbat daude denera?

LIERNI: Lau.

IÑAKI: Sei

ANDER: Bat dago.

IÑAKI: Bat, bi eta hiru... / Aaaaa! Seeiii! (OFF) Irabazi egin dut... Irabazi duuut!

LIERNI: Zenbat daude? Uuuhm!... Lau!

ANDER: (OOF) Ea, ea... bat, bi...

IÑAKI: (OFF) Utzi niri... bat, bi...

LIERNI: Oooo! Orain zer...?

EIDER: E, e! Jolas naiteke?

IÑAKI: Ez! Alde hemendik!

EIDER: Ez dit gogoak ematen.

ANDER: Zoaz hemendik, ez zirikatu!

EIDER\LIERNI:

EIDER: Zergatik joan behar dut? Leku hau ez da zuena!

LIERNI: Zu bezalakoekin ez garelako jolasten.

ANDER: Alde, alde!

IÑAKI: (OFF) Ez egin kasurik, jarraitu dezagun.

EIDER: (Negar)

IÑAKI: Ba! Pse!

LIERNI: Nor da hau?

IÑAKI: Lamiaren alaba. Mundu guztiak ezagutzen du. Zurrumurruek diotenez, gauez haurrak lapurtzen dituzte...

ANDER: Ba! nik ez dakit ezer. Ez diezu sinetsiko, ezta?

IÑAKI: Baietz, Txerrenen alabak ei dira!

LIERNI: Baina nork esan dizkizu txorakeria horiek? Aitak?

ANDER\IÑAKI\LIERNI: Kar, kar, kar!

EIDER: Ama! Ez dute nirekin jolastu nahi! A, aaa! A, aaa!

ARANTXA: Ea... Zer gertatu da? Kontaidazu. Lasai, maitea, lasai!

EIDER: Zergatik ez dute nirekin jolastu nahi? Zer egin diet ba?

ARANTXA: Oooo... Zuk ezer ez, nigatik da.

EIDER: (Negar) E? Zer zerikusi duzu zuk honetan?

ARANTXA: Ba... Asko.

EIDER: Zer egin diezu?

ARANTXA: Ez naiz haien gustukoa. Hobeto esateko, haien gurasoen gustukoa. Aaaa!

EIDER: Aaaa!

MARI: Eider hain triste ikusita, amak bere haurtzaroa kontatzea erabaki zuen...

ARANTXA: Uste dut heldu dela gauza bat kontatzeko garaia.

EIDER: Oooo!

ARANTXA: Lamia naizela esaten dute.

EIDER: Zer?

ARANTXA: Kar, kar, kar... Eta sorginduta nagoela!

EIDER: Zeeer?

ARANTXA: Bai, uste dute ahalmen bereziak ditudala, eta beldur dira.

EIDER: (Tartean) Hara! (Ad Lib)/ Eta hori egia da?

ARANTXA: Bai zera! Egia izango balitz, munduan makina bat gauza konponduko nituzke!

EIDER: Orduan, zergatik uste dute hori?

ARANTXA: Nire birramonaren birramona ez zen kristaua; alegia, ez zegoen bataiatuta.

Harentzat, natura bera zen jainko bakarra eta ez besterik. Uste zuen haizea, pagoa, hodeia, eguzkia, tximista, ortzia eta... zirela unibertsoaren jaun-eta-jabeak.

EIDER: (Tartean)

EIDER: Ba, kaleko lagunek esaten dute jainko bakarra dagoela!

ARANTXA: (OFF) Bai. Begira: batzuek diote jainko bakarra dagoela; beste batzuek, ordea, bat baino gehiago dagoela; eta badira jaungoikorik existitzen ez dela diotenak ere! Nire familiako emakumeek eta beste askok uste zuten haizea eta euria edo eguzkia bera bizirik zeudela, eta oso boteretsuak zirela.

EIDER: Eta horregatik horrenbeste arazo?

ARANTXA: Utziii... Jarraitu egingo dut.

EIDER:

ARANTXA: Tira, nire birramonaren birramona gizon batekin ezkondu zen. (OFF) Askok maite zuten elkar.

JON: Tori, bihotza!

NEKANE: Aaaaai! / (Musu) / Aaaaai!

JON: Oooooo! / (Musu) / Aaa, a zer neska!

ARANTXA: (OFF) Oso zoriontsuak ziren. Eta... ezkontzea erabaki zuten...

NEKANE: Bai, zurekin ezkonduko naiz, baina baldintza batekin.

JON: Zer baldintza, maitea?

NEKANE: Nire sinesmenak errespetatuko dituzula. Ez naiz elizara joango. Aditu?

JON: Laztana, zin degizut zure sinesmenak errespetatuko ditudala. / (Musu)

ARANTXA: (OFF) Eta halaxe egin zuen, seme bat izan zuten arte.

JON\NEKANE: (Musu)

ARANTXA: (OFF) Egun batean Jon, nire birramonaren birramonaren senarra basoan lanean zebilela...

JON: (Kanta)

JULEN: Zorionak! Seme bat izan duzue, ezta?

JON: Bai, eskerrik asko!

JULEN: Aja... eta... Noiz eramango duzue bataiatzera?

JON: Ba, ez dugu eramango! Nire emazteak ez du nahi.

JULEN: E? Baina ez zara konturatzen infernura joango dela?

JON: Kia!! Hori ez da egia! Utzi bakean! Alde!

JULEN: Aitaren eta semearen... eta...

ANTON: Uuuuhm... epa! Kaixo, Jon. Zer moduz zuen jaioberria?

JON: Ondo...

ANTON: Eta... bataiatu al duzue?

JON: Zera, ez! Badakizu, nire emazteak ez du zuen jaungoikoagan sinesten! Eta... zera...

ANTON: Baina, baina, baina... infernura joango da-ta!

JON: Kia! Ez horixe! U(t)z nazazu bakean!

ANTON: Aaaai! Aaaii, ene! Baina, baina Jon, ez zara konturatzen? Umea bataiatu egin behar duzu!

JON: Esan dizut nire emaztea ez dagoela ados! Gainera, mundu honetan, nork bere sinesmenak ditu. Utz gaitzazue bakean!

ANTON: Ondo da, ondo da, ondo da... Zure emazteak ez duela umea bataiatu nahi diozu?

ANTON: Ba... ba ez du jakin beharrik. Eraman ezazu zerorrek, eta kito!

JON: Emazteari ezer esan gabe?

ANTON: Horixe! Hartu umea eta eramán elizara. Emazteak jakiterako, bataiatuta egongo da.

JON: E! Hori ezin da egin. Hobeto esanda, ez da bidezkoa!

ANTON: Kasu egin, Jon! Bihar, egunsentian, har ezazu umea, eta zoaz elizara, bestela jendeak ez zaituzte onartuko.

JON: Zer? Oooo!

ARANTXA: (OFF) Orduan Jon zalantza egiten hasi zen: eta bera oker eta bere herrikideak zuzen bazeuden?

ARANTXA: Badaezpada bataiatzea erabaki zuen. Umea hartu zuen, emazteari ezer esan gabe, eta elizara abiatu zen.

EIDER:

ARANTXA: Baina nire birramonaren birramona konturatu eta jarraitu egin zion.

ARANTXA: (OFF) Jon triste zihon, bazekien-da bere emaztea ez zela bat etorriko. Haurrak negar eta negar egiten zuen, zer gertatzen zen baleki bezala.

JON: Hasperenak

UMEA: Negar

ARANTXA: (OFF) Elizaren ondoan zegoenean geldiarazi zuen emazteak senarra.

NEKANE: Zer? Ez nizun esan ba ez nuela bataiatu nahi eta ez nintzela elizan sartuko?

JON: Bai, baina jendeak gutaz hitz egiten du, eta, bakean uzteko, umea bataiatzea erabaki dut.

NEKANE: Ez dago beste irtenbiderik?

JON: Niri ez zait bururatzen.

NEKANE: Begira, senarra, nik asko maite zaitut, eta ulertzen dut zure kezka. Tratu bat egingo dugu.

JON: Eeeehm... Zein?

NEKANE: Haurrak hala nahi badu, bataiatu egingo dugu. Ados? E?

JON: Eeeeeemh... Noiz?

NEKANE: Nagusixeagoa denean. Orduan berak erabaki dezala. Guk bere iritzia errespetatuko dugu. Ados?

JON: Oso ondo esana dago!

NEKANE: Eta, orain, goazen etxera, oraindik oso goiz da eta!

JON: Bai / (Musu)/

NEKANE: (Musu) /

ARANTXA: Erabakitakoa zentzuzkoa iruditu zitzaieen bie. Eta biak ala biak pozik zeuden tratuarekin.

ARANTXA: (OFF) Zoriontsu bizi izan ziren luzaroan. Baina, halako batean...

ANTON: (Kanta) Egun on!

JON: Baita zuri ere!

ANTON: Zer? Azkenean, bataiatu egin duzue?

NEKANE: Hori zuri bost axola!

ANTON:

NEKANE: Ez zaitez besteen gauzetan sartu..

ANTON:

JON: Horixe! / Nire emazteak arrazoi du. Hori gu bion kontua da... Ulertzen?

NEKANE: Ea besteen sinesmenak errespetatzen ikasten duzun! Aditu?

JON: Hori, hori!

ANTON: Bai, bai... beno... ni banoa... agur...

JON: Oso ondo esana, maitea!

NEKANE: Inoren etxera kontuak ateratzen!

ARANTXA: (OFF) Eta gizona erabat lotsatuta joan zen.

JON: Etorri, laztana, hurreratu... / (Musu)

NEKANE: (Musu)

EIDER: (Barre) Baina inoiz ez zaituzte bakean utzi.

ARANTXA: Bai eta ez. Gero eta gutxiago dira besteen eskubideak errespetatzen ez dituztenak, eta badakizu zein diren?

EIDER: Zein?

ARANTXA: Ezjakinenak, tontoenak, ezikasienak...

EIDER: (Barre) Ba, gaur, dirudienez, tontoenekin egin dut topo! (Barre)

ARANTXA: (Barre) Beno... beste aukera bat eman beharko diezu!

EIDER: Beste aukera bat? Ia hitz egiten ere ez didate utzi eta!

ARANTXA: Uuuuumh... Beno... Neuk lagunduko dizut. Goazen kalera!

EIDER: Goazen...

IÑAKI: Zenbat daude?... Bost!

LIERNI: Lau!

ANDER: Uuumh... Sei! Sei daude!

IÑAKI\LIERNI\ANDER: Bat, bi eta hiru!

IÑAKI: Ja! Bost daude! Iepa... Iepalaaaa!

ANDER\LIERNI:

EIDER: Zer egingo diezu? Ahalmen bereziak erabiliko dituzu?

ARANTXA: (Ironiaz) Uuuuumh... Agian. Apo bihurtuko ditut ala lapiko?

EIDER: Lapiko! Horrela tontolapikoak deituko diet, ja, ja, ja!

ARANTXA: Kar, kar, kar...

ANDER: Bi!

IÑAKI: Bat!

LIERNI:

ARANTXA: Jmm!(azpijokoan) Ez da ideia txarra, baina beste hobeago bat dut.

EIDER: Zein?

IÑAKI: Kar, kar, kar... Irabazi dut berrirooo... Kar, kar, kar...

ARANTXA: Nire ahalmen bereziak erabili orde, erabili zeureak. Zuk zeuk konponduko duzu arazoa, bai?

EIDER: Baina, nik ez dut ahalmenik!

ARANTXA: Ez pentsa, denok dauzkagu...

EIDER: Eee?

ARANTXA: Hementxe. Zoaz, eta eskaiezu jolasteko. Ez etsi! Ni hemen izango naiz, ez zaizu ezer gertatuko. Zoaz!

EIDER: Bai... / Bale, bale!

ANDER: Bat! / Bat, bi eta hiru!

IÑAKI: Bat, bi eta hiru!

LIERNI: Bat, bi eta hiru!

ANDER: Inuzentea! Baboa!

LIERNI: Inuzentea! Baboa!

IÑAKI:

EIDER: Ez! Denak nire kontra daude, eta zure erruagatik!

ARANTXA: Denak ez, eta ez zaitez nirekin haserretu. horrek ez baitu ezer konponduko! Tira, zoaz jolastera!

EIDER: Aaaaaii... Beno... /

ARANTXA: Zoaz, zoaz...

IÑAKI: Bat, bi eta hiru...

IÑAKI\ANDER\LIERNI: (Giroa. Denak aldi berean)

EIDER: Aizue! Jolas naiteke?

IÑAKI\ANDER\LIERNI: E?

IÑAKI: Zu? Lehenago ere esan dizugu ezetz! Ez duzu aditu?

EIDER: Bai, baina pentsatu dut beste aukera bat merezi duzuela. Ziur zaudete ez duzuela nirekin jolastu nahi?

ANDER: Ja, ja, ja! Nigatik, ondo!

LIERNI: ja, ja, ja! Bale, bale, zatoz jolastera!

IÑAKI: Oso ausarta zara, ezta? Ba, nik ez dut zurekin jolastu nahi!

EIDER: Ondo da. Zu ez jolastu, eta kito!

ANDER\LIERNI: (Barre)

IÑAKI: Zeeeer?

EIDER: Besteak baztertzen dituen ez da jolasten! Zer deritzozu?

IÑAKI: Ezin zarete berarekin jolastu, nik ez dut nahi!

ANDER: Baina guk bai, badakizu? Nazkatuta gauzkazu zeure argelkeriekin!

LIERNI: Zeuk erabaki: jolastu nahi baduzu, ezin duzu inor baztertu...

IÑAKI: Agur! Banoa! Ez dut zuekin ibili nahi!

MARI: (OFF) Eta hala, baztertzailer eta tranpati hark bere amorrua eraman behar izan zuen handik.

LIERNI: Tira, har itzazu harritxo hauek.

ANDER: Badakizu harritxoekin zotz egiten?

EIDER: Ez!

ANDER: Ba... bi harritxo dituzu. Lehenengo jar itzazu eskuak atzean inork ez ikusteko! Gero esku bat atera hutsik, edo harri bat edo birekin. Eta denok eskuak aurrean ditugunean, guztira zenbat harri dauden asmatzen saiatu behar duzu.

MARI: (OFF) Harrezkero, Eider, lamiaren alaba lasai eta pozik jolastu zen herriko lagunekin. / Zuok ere ez zaitez tala inoiz baztertuak izan! Eta etzazue inor baztertu! Agur!

EIDER: Aaaa!

BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

SOINU BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:

Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M^a Rodríguez

K 2 0 0 0 S . A .

Produktore exekutiboa:

Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:

Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:

Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:

Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-12-16**

LEGE GORDAILUA: : SS-1028/04

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**